

**2020ko URRIAREN 29an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA** **12 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2020ko urriaren 29an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Miren Letamendia Belloso and. (telematikoki) Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozueta Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. (telematikoki) Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iker Basurko De Miguel jn. (telematikoki) Irene Urbieto Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. (telematikoki) Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. (telematikoki) Eider Illaramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita and.
Ez da etorri	Jesus Goikoetxea Balentziaga jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Covid-19ak eragindako alarma egoera dela-eta, aipatutako zinegotziek bideokonferentzia bidez hartu dute parte.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2020ko IRAILAREN 24ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA..

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20201029&punto=1>

Udalbatzarrak onartu du, aho batez, 2020ko irailaren 24an egindako osoko bilkuraren akta.

2.- 2020ko URRIAREN 8ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20201029&punto=2>

Halaber, Udalbatzarrak onartu du, aho batez, 2020ko urriaren 8an egindako osoko bilkuraren akta.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2020ko irailaren 21etik urriaren 23ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20201029&punto=3>

Segidan, Alkatetzak 2020ko irailaren 21etik urriaren 23ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2020ko irailaren 21etik urriaren 19ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20201029&punto=4>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko irailaren 21etik urriaren 19ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

5.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

– 2020ko 3. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20201029&punto=5>

Udalbatzak jakin berri du 2020ko hirugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

– 2020ko 3. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20201029&punto=6>

Halaber, Udalbatzari jakitera eman zaio 2020ko hirugarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

7.- ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ONDARE HISTORIKO ETA ARKITEKTONIKOAREN KATALOGOA ALDATZEA, UDALAREN JABETZAKOA DEN EBRO ETXEA BERTATIK ATERATZEKO. HASIERAKO ONESPENA.

Espedientea: 2020H7000006

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20201029&punto=7>

Akordio-proposamena irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	10	(10 EAJ-PNV)
Botoak aurka	8	(7 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)
Abstentzioak:	2	(2 PSE-EE)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Ebro Etxea eraikina sartuta dago Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren ondare historiko eta arkitektonikoaren katalogoan, toki intereseko ondasun higiezinaren atalean (1. kategoria). Eraikinak ekipamendu publikoaren kalifikazioa dauka.

2020ko uztailean, Udalak hala enkargatuta, Iñigo Peñalba arkitekto eta UPV-EHUko irakasleak eraikinaren ondare-balioari buruzko azterlana idatzi zuen. Txostenaren konklusioa izan zen Ebro Etxeak ez duela arkitektura, ingurumen edo ingurune baliorik, haren babesa justifikatzeko.

Adituaren txostena ikusita, espediente bat hasi zen Ebro Etxea plan orokorreko ondare historiko eta arkitektonikoaren katalogotik ateratzeko.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak proposamenari buruzko txostena egin zuen, eta Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, botoen gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hasierako onespina ematea Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren ondare historiko eta arkitektonikoaren katalogoaren aldaketari, EBRO ETXEA eraikina bertatik ateratzeko.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, interesdunek aukera izan dezaten bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak aurkezteko. Jendaurreko epea 30 egunekoak izango da, eta erakustaldiaren izapidea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jakinaraziko da.

Halaber, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, txostenak eskatuko zaizkie kultura-ondare gaietan eskudun diren Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako departamentuei. Hilabeteko epean txostenik egiten ez badute, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du.”

8.- 10.2 –OR SALBERDIN– AREAREN BIRPARTZELAZIO PROIEKTUKO R3 PARTZELA (1 ELEMENTUA) LEHIAKETA BIDEZ SALTZEKO PROZEDURA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRIA.

Espedientea: 2020HHHH0007

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20201029&punto=8>

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du idazkari andreak. Amaieran, udal taldeek beren iritzia eman dute, eta proposamena bozkatu. Hona hemen emaitza:

Botoak alde	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	-	
Abstentzioak	8	(7 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Udalak espediente bat hasi zuen 10.2 –OR Salberdin– arearen Birpartzelazio Proiektuko R3 partzelaren 1 elementua besterentzeko (azpipartzela eraikigarria).

R3 partzela udal lurzoru-ondarearen parte da, eta bere xedea udal etxebizitza tasatuak egitea (50 inguru). Hasiera batean erregimen orokorrekoak izango zirela aurreikusi zen, baina sustatzen dituenak erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuak egin beharko ditu (prezio aldetik eskuragarriagoak).

Hirigintzako legediaren arabera, lurzoru-ondare publikoko ondasunen besterentzea, oro har, kostu bidez eta lehiaketaren bitartez egingo da.

Hori horrela, partzela hori lehiaketa bidez saltzeko prozedura arautuko duen Administrazio-klausulen Agiria idatzi zen. 3.305.825 eurokoa da partzelari jarri zaion oinarritzako prezioa. Gainera, adjudikaziodun gertatzen denak sotoko perimetro-hormen eraikuntza-kostua ere ordaindu beharko dio Udalari (obra hori dagoeneko eginda dago).

Idazkaritzako eta Hirigintza eta Ingurumeneko departamentuetako teknikariek espedienteari buruzko txostenak egin dituzte.

Proposamena Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, botoen gehiengorekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU:

Lehena.- 10.2 –OR Salberdin– arearen Birpartzelazio Proiektuko R3 partzelaren 1 elementua (azpipartzela eraikigarria) lehiaketa bidez saltzeko prozedura arautuko duen Administrazio-klausulen Agiria onartzea.

Bigarrena.- Dagokion deialdi publikoa egitea.

Hirugarrena.- Nahitaezkoak diren gainerako izapideak betetzea, eta lizitazioa kontratatzailearen profilean eta prentsan argitaratzea.”

9.- ESKARI-GALDERAK.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20201029&punto=9>

Gai-zerrendako puntu honetan, alkate jaunak eta EH-Bildu eta PSE-EE talde politikoetako ordezkariak agurtzeko hitz batzuk esan dizkiote Udalbatzaren bilkuretara etorri izan den Nekane Murua Azkue funtzionarioari; izan ere, Zarauzko Udalean 41 urtetan lan egin ondoren, erretiroa hartuko du bihar, urriak 31.

10.- ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20201029&punto=10>

Espedientea: 2020III0022

2020ko urriaren 22ko idatziaren bidez (udaletxeko sarrera-erregistroan 12004 zk.), EAJ-PNV udal talde politikoko zinegotzi JON ANDONI URDANGARIN URRUTIA jaunak uko egin dio Zarauzko Udaleko zinegotzi karguari.

Horrenbestez, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- JON ANDONI URDANGARIN URRUTIA jaunak, EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV) hautagai-zerrendakoa denak, zinegotzi karguari egindako ukoaren berri formala hartzea.

Bigarrena.- Akordio honen ziurtagiria eta zinegotziak egindako ukoaren kopia Hauteskunde Batzorde Nagusira bidaltzea, hark beharrezko egiaztagiria egin dezan, kargua utzi duen zinegotzia ordezkatu ahal izateko.

Urdangarin jaunak hitza hartu du Udalbatzari bere esker ona adierazi eta agur esateko.

Talde politiko guztietako bozeramaileek agur hitzak esan zizkioten kargua uzten duen zinegotziari.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, iluntzeko zortzi eta erdietan; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.